

# Urrats bat aitzina, bi urrats gibelerera

Frantziaren menpeko kultur eta hizkuntza gutxituen topaketetan kezka azaldu dute parte-hartzaileek

**AITOR RENTERIA**  
Kanbo

Legez zirkuituetan lerratz, egoera politikoaren ostarreak baliatuz, Frantziak kudeatzen dituen herrialdeetako kultur eta hizkuntza gutxituek ahal bezala, indar harremanetan oinarrituz eramaten dute hizkuntz politika. Arras ezberdinak dira egoerak eta plantan ezartzen diren hizkuntza politikak. Preseski, egoera hori izan zen Kanboko Hizkuntza eta Kultura Topaketan abiapuntua, atzo. Frantziaren menpeko kultur eta hizkuntza gutxituen topaketa da. Lehenik Gerard Cronemberger Alsaziako ordezkariak hartu zuen hitza, eta salaketa gogorra egin zuen. «Frantziak erantzukizun politiko handia du, Errektoreak komisario politiko gisa aritzen dira eta hizkuntza hiltzea da haien eginkizuna».

Hizkuntza politikaren lehen urratsak abiatu bazituen ere, Frantziak gibelerara egin du Alsazian 2007-2013rako osatu duen plangintzan. Kreolera eta alsaziera hizkuntzak ez direla erraten duen artez araua osatu zuen Frantziako Gobernuak iaz. Azkenean, lortu dute alsaziera atxikitzea eskoletan, baina hizkuntz arrotz gisa. «Gure hizkuntza hiru orenez ikasteko onarrazten digute gure hizkuntza arrotza dela, hori da Errektoreak lanpostuak emateko atzeman duen bide bakarra».

Irakaskuntza alorrean, adibidez, irakasle postuak bikoiztuko



Hizkuntza eta kultura gutxituetako hamar ordezkariak bildu ziren atzo Kanbon. BOB EDMÉ

direla dio Cronemberger-ek, baina ez da eskola berririk irekiko.

Bretainian ere zalantzan dago hizkuntza politika, Frantziak ez duelako plangintza berria izenpetu nahi. «Estatuaren jukutriak agerian gelditu dira, gelak irekitzea debekatzen du, eta adostutako helburuak faltsutu egiten ditu; murgiltze ereduaren lortu behar ziren postuak, adibidez, eredu guztien artean lortu beharrekoa dela errazte orain», jakinarazi zuen Andre Le Gac Finisterreko kontseilari nagusiak.

Jaume Pol Kataluniako Font Nova erakunde zuzendaririk Frantziaren axolagabekeria salatu zuen. «Kontseilu Nagusiak diru poxia banatzen du, baina ez dugu ezagutzen hizkuntza politikarako arduradunik». Hizkuntzaren alde-

**«Errektoreak komisario politiko gisa aritzen dira eta hizkuntza hiltzea da duten eginkizun»**

GERARD CRONEMBERGER  
ALSAZIARAKO HAITZETSIEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

**«Estatuaren jukutriak agerian gelditu dira, adostutako helburuak faltsutzen ditu»**

ANDRE LE GAC  
BREITAINIARAKO FINISTERREKO KONTSEILARI NAGUSIA

**«Kontseilu Nagusiak diru poxia banatzen du, baina ez dugu ezagutzen hizkuntza politikarako arduradunik»**

JAUME POL  
FONT NOVA ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

ko urratsak, nagusiki, Generalitateko gobernuak emandako laguntzei esker egin dira. «Haiek ordezkariak finkoa daukate Ipar Katalunian, eta, guk, era berean, ordezkariak daukagu Bartzelonan».

Korsikan urrats sendoak eman dituzte, baina oraindik ez dago egiazko hizkuntza politikarik plantan. Korsikako Asanbladak elebitasuna orokortzea helburu duen estrategia finkatu du. Amasoloko zentro guztietan korsikera sartuko dute hiru orenez. Gisa berean, korsikeraren erabilpen soziala bultzatu nahi dute, administrazioetik hasita. Datorren urterako hizkuntza politikarako erakundea sortzea espero dute. Orduan osatuko dira aurrekontuak.

«Ofizialtasunak aldeko eta kontrako jarrera sutsuak ditu Korsi-

kan, baina garapen plana osatu duen batzorde zientifikoak, adibidez, ezetz uste du, ofizialtasunik gabe ezin dela lortu osatu dugun plangintza».

Kontinentetik urruti daude uharteak, eta Martinikan zein Guadalupen zokoratuak sentitzen dira. «Ez genekien kreolerari hizkuntza estatusa kendu ziola Frantziak, eta legea aldatu zelarik gure borroka bertze bat izan zen, kentzea historia liburuetatik kolonialismoa onuragarria zela zioen al-paldia», jakinarazi zuen Christophe Madere Guadalupeko CCEeko presidenteordeak.

Samin ozenak eta isilak ere egon dira Kanbon. Hizkuntza gutxituen topaketa garrantzitsua bada ere, euskararen presentziarik eza agerikoa izan da. Antolatzaileek parte-hartzaileei emandako material guztia frantsesez dago. Kanboko turismo bulegoko poltsa frantsesez soilik. Pirinio Atlantikoetako estalki txukunetan bildurik zegoen materiala, frantsesez. Txostenez gain, Biarnoko eta Ipar Euskal Herriko mapak eta gastronomia propaganda frantsesez.

**LEGEA ARAZOAREN MUINEAN.** Topaketa beti dira interesgarriak ikusteko hizkuntza gutxituak zein puntutan diren. «Beti egin dugu irakurketa bera eta hori salatu dugu kanpoan: lehenik eta behin gure hizkuntzei estatus ofiziala eman behar diete, horrek finkatuko dituelako ematen administrazioen betebeharrak» adierazi zuen Paul Bilbao Hizkuntza Behatokiko zuzendaririk. Ofizialtasunik ezean plantan ematen dituzten hizkuntza politikak ezin dutela normalizazioa lortu azaldu zuen. Ildo berean hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen gaineratu zuen. «Estatuari eskatu behar zaio hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuko duen ordenamendu juridikoa».

## Liskarra gainditu du Perez-Nievasek

**ASIER AZPLIKUETA**  
Iruñea

Euskara hitz egiten duten bertze lurraldeetako erakundeekin Nafarroako Gobernuak euskararen inguruko harremanak izan dituela, badituela eta izanen dituela adierazi zuen, atzo, Carlos Perez-Nievasek Hezkuntza kontseilariak. Zehatzago, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearekin harreman «oso ona» dela erran zuen.

Nafarroako Parlamentuko oso bilkuran bota zituen adierazpenok, Nafarroa Bairen galdera bati erantzunez. Zehazki, Maria Luisa Mangado parlamentariak galdetu zion harremanik izanen ote dituen, zein planaren arabera, zein alorretan, zein helbururekin eta zein epetan. Perez-Nievasek, bere

lehen erantzunean, ez zuen ezer zehaztu, bere iritziz «galdera zehatza egin behar zelako» eta «parlamentariak aspertu nahi ez zituelako». Izandako liskarrak «gaindituta» zeudela eta harreman onak daudela erran zuen. Bertzerik ez. Hori entzunda, Mangadok berriz ere galdetu zion, azalpenekin Perez-Nievasek parlamentariak aspertuko ez zituela argudiatuta.

**ZUZENDARIK GABE ERE, LANEAN.** Bigarren erantzunean, Perez-Nievasek berriz ere erran zuen Baztarriarekin izan zuen ika-mika «bukaturtat» ematen zuela berak, eta Eusko Jaurlaritzarekin euskara dela eta dituzten zenbait harreman zereendatu zituen. «Euskal diputatuak bezala, Nafarroako Gobernuak ere eusten dio Euskaltzain-

diarekin duen hitzarmenari», erran zuen lehenik.

Bigarrenik, EGA agiria aipatu zuen. Gobernuak eta Jaurlaritzak elkarlanean aritzen baitira, agiri hori emateko. Horren harira, Perez-Nievasek ALTE elkartea aipatu zuen, Europar hizkuntza agiriak ematen dituen elkartea. EGA Jaurlaritzak ordezkatzeko, eta Perez-Nievasek erran zuen Gobernuak ere nahi duela ordezkari hori eta Jaurlaritzarekin «lanean» ari direla hori lortzeko. HARE erakundearekin ere harremanak dituztela erran zuen azkenik. «Ikusten denez, nahiz eta Euskararen Nafar Institutuak zuzendaririk ez izan, lanean segitzen dugu».

Gogoratzea ia 60 egun joan dira institutua aurkeztu zutenetik, eta oraindik ez dute zuzendaririk.

## EHEk gaur hasiko du Ezabaketa Astea

**NAGORE VEGA**  
Donostia

Euskal Herriaren Euskarazek (EHE) Ezabaketa Astea hasiko du gaur. Hilaren 16ra arte, herriz herri eta auzoz auzo hamaika ekimen egingo dituzte, hala nola erdarazko errepedeetako agerbideak ezabatu, eta pegatinak jarri. «Hizkuntza eskubideen zapalkuntza agerian utzi, eta euskararen ofizialtasuna aldarrikatzea» dute helburu.

«Egunerokoan, ezinezkoa zaigu euskaraz bizitzea, gainera, bizi dugun testuingurua banatzailea da», Nestor Esteban eta Silonis Aurrekoetxea EHEko kideen esanetan. Lehen, Ezabaketa Eguna antolatu zuten, baina egun batek askorako ematen ez ziela-eta, astebe-

te luzatu zuten salaketak egiteko epea. Astebete honetan, eremu pribatuan zein publikoan euskarak jasaten dituen urratuak salatuko dituzte. Kartelak, agerbideak eta antzekoak ezabatzeaz gain, lehen aldiz, pegatinak jarriko dituzte herrien sarrerako bide seinaleetan. Pegatina horietan *Euskal Herria* hitzak irakurri ahal izango dira: «Euskal Herria eta euskara, bata bestea gabe ez baitira deus».

Euskal Herria eta euskara aldarrikatzeko marko egokirik ez dela uste du EHEk. Iaz Euskal Herriak une politiko garrantzitsua bizi zuela diote. Euskarak behar duen estatusaren eta aldatzea politikoaren eztabaidak eskutik helduta joan behar zutela esan zuten.